

Berak ere *Euskera galdurik* zedukan. Baiñan arabar-odolak zaiñetan irakiten zion eta Olabide'k egun batean itz bat esan zuan: «Gaur-tandik!»; gaurtandik asita, ni egingo naiz, gure asabaen Euskera ederraren jabe!

Baita egin ere! Ikusi besterik ez dago, ez Euskeraren jabe no-la-naiko; *lau lan* bikain-bikaiñen egille gañera: «Kristoren Antz-bidea», «Eneko Deunaren Gogo-Iñarkunak», «Giza-soiña» eta batez ere «Biblia» osoa, «Itun Zar» eta «Itun Berri». Orra or, arabar baten «*bai*» batek zer lezakean.

Or dezute zuen eredia! Eta ez noa geiago ezer esatera. Jarrai dezazutela, Aita Olabide'ren bidetik, *aspertu gabe*.

## RESUMIENDO

Alaveses que me escucháis: Acabo de evocaros la figura del gran alavés, que fue el P. Olabide, como modelo a imitar por todos vosotros en el momento actual de nuestra vida en relación con el problema de nuestra lengua vasca; lengua que es la de vuestros abuelos, y la misma que para siempre dio a Alava su común denominador con Vizcaya y Guipúzcoa, de *Euskalerría* o Provincias vascongadas.

Alava ha sido de siempre uno de los estamentos vascos, en comunidad de sangre, instituciones, cultura y concretamente lengua con las Provincias Hermanas.

A propósito, he evocado con nostalgia este último hecho de la lengua, extensiva antaño, ya no a solo Alava, sino también a las vecinas tierras de gran parte de la actual Castilla —Castilla a cuya erección, en la Edad Media, en Reino separado de León tanto ayudaron precisamente Alava y Vizcaya—. Gran extensión tenía entonces nuestra lengua por estas tierras. Extensión que, con el tiempo y en fuerza de los contactos y roces culturales a que se ven sometidos los pueblos, al fin se redujo a las dimensiones actuales, de Vizcaya, Guipúzcoa y parte de Navarra, quedando Alava casi toda ella fuera del ámbito euskeldun.

He trazado un esquema de estos roces culturales, haciendo especial hincapié en el *paso por el corazón de Alava* de las grandes vías de comunicación —Astorga-Burdeos concretamente—, vía que, como es sabido, pasaba por en medio de la Llanada, a los pies de lo que luego se llamó Vitoria, y entonces, quizás por ese motivo, se llamaba Gazteiz; vía de comunicación, por la que transitaron por siglos desde las Legiones Romanas del Imperio, hasta las continuas riadas de transitantes forasteros por motivos de comercio o de peregrinación. En estas circunstancias no era extraño, decía, que la lengua más débil —la vasca de Alava— sucumbiera ante la gran cultura latina.

Pero he destacado de propósito, porque así es cierto, que aquel sucumbir del Euskera en Alava fue lento, lentísimo, merced sin duda a la clásica tenacidad alavesa; porque, a pesar de que aquellos roces partían desde el siglo I de nuestra Era, aun en el siglo XVIII se hablaba la Lengua de Aitor, nada menos que en Cuartango; y en los albores del siglo XIX, al arrimo de la sierra de Aizkorri, en la zona de Guevara.

He destacado por contraste y como complemento explicativo la circunstancia de haberse hallado el Euskera en Guipúzcoa y Vizcaya, al abrigo de las montañas, situación que tanto contribuye al autoctonismo de una Región con su cultura; circunstancia que a Alava le faltó siempre por su posición geográfica abierta.

Por fin, y ante el modelo del gran ejemplar alavés, que fue el vitoriano P. Olabide, he augurado días felices de *reconquista* y *recuperación* del perdido verbo euskeldun, para una Región que con tanto tesón defendió su goce y conservación por siglos, tesón que para mí es garantía de su no lejana quizás *recuperación*; recuperación cuyos inicios —modestos pero eficaces inicios— están en la institución de las *Ikastolas* de los *gatzetxus*.

Para terminar, sé que para todo contáis siempre con la sombra benéfica de una feliz orientación de vuestras *Instituciones Forales*, concretamente de vuestra Diputación alavesa, con su celebración, entre otras, de sus Juntas Forales, por las «Tierras Esparzas» de todo el ámbito alavés. Detalle que anoto aquí, porque felizmente me encuentro hoy bajo la agradable impresión de una visita a la típica aldea alavesa, de San Vicente de Arana, aldea

cuya iglesia ha sido ejemplarmente restaurada por vuestra Diputación, y en cuyo *acogedor Pórtico* restaurado me ha sido dado contemplar con emoción una magnífica inscripción lapidaria conteniendo una máxima de gran gobierno de los pueblos, máxima que la hace, para nuestro caso, más simpática aún el gesto de vuestra Diputación de haberla formulado en lengua vasca, para perpetua recordación a los habitantes del lugar de la lengua que en pasados siglos, quizá no muy lejanos, hablaron sus abuelos.

Y, con esto, no me queda más que agradeceros cordialmente la atención que me habéis prestado.

MANUEL LEKUONA

23-2-1969

## BESKOITZEKO HITZALDIAK

### EYHERABIDE JAUNAREN MINTZALDIA

Eskualzaindiar jaun-andereak.

Eskualdun anai-arreba maiteak.

Ene lehen hitza izanen da zuen alderat: Bezkoitzeko herriaren izenean ongi ethorri!

Eskerrak nahi daukitzuet bihurtu, zeren egin daukuzuen fagorea eta ohorea, Bezkoitzeren hautatzeko, zuen urthekeo biltzarren egiteko tokitzat.

Eskerrak ere, phesta hunen xutik emaita, lagundu gaituzten guzieri.

Eskerrak azkenean deneri, zeren daukuzuen, zuen partaliertasunaz, phesta hau edertu eta aberastu.

Ezen zuzen, gisa eta ohi da, herrietan izan diren, omen haundiko gizonen orhoitzapena zerbeit gisaz begiratutzea, ondokoek ez ditzaten ahantz. Bezkoitzeko herriak nahi izan du bere eginbidea

bethe, herriko seme, Joanes Leizarraga, aphez idazle aiphatuaren alderat. Duela lau ehun urthe bizi izan da hemen, Leizarragako leihor ederreko, etxe zabalean.

Jonaesek, denbora hetakotzat, bazituen ideia berri batzu. Ideia berri heieri esker, asko gauza nahi zituen kanbiatu. Hortarik, zernahi behar izan zuen pairatu eta sofritu, orduko hainitz jendek ez baitzituten gogo onez ikhusten Joanesen kanbiamenduzko ideia berriak.

Bezkoitzeko herriak ezagutu dituen semetan aiphatuen aiphatuaren orhoitzapenetan, orhoit harri bat ezarri dugu hemen, Joanes zenaren izenarekin.

Orhoit harri hau agurtzean, har dezagun xedea, bethi errespetatzeko lagun protsimoaren ideiak eta ikhusteko manierak.

Ezen, egungo egunean ere, ikhusten badire, zorigaitzez, munduan, hoinbertze nahasmendu, hoinbertze elkar ezin jasanezko manera, horiek oro ez da dudarik heldu direla, ez ditugulakotz aski errespetatzen lagun protsimoaren ideiak eta ikhusteko manierak.

Bertzalde, orhoit harri hau izan dadila lekhuko, Bezkoiztarrak eskualdun daudela, maite dituztela aphez eta idazleak.

Joanes, zu izan zira gizon, aphez eta idazle, fede suharrekoa. Idazleen parabisutik begira eta geriza zazu, othoi, bezkoiztarren fedea. Sor arazkitzu, Eskual Herrian eta zendako ez Bezkoitzen, zure dohain aberatseko aphez idazle hainitz. Bezkoitzeko herriaren izenean, bihotzetik zaitut agurtzen, bihotzetik eskerrak dauzkitzut bihurtzen.

## EUSKALTZAINBURU JAUNAREN HITZALDIA

Beskoitzeko alkate jauna:

Jaun-andreak:

Loriaturik da egun Euskaltzaindia, Euskaldun iskribatzaile zaharrenetako baten goratarrezko jaialdi hau ikustean. Loriaturik, bereziki, goratarrean parte hartzera deitua izan delako. Bai. Eskerrak errendatu behar dizkitzugu zuri, alkate jaun horri, Leizarraga beskoiztarraren ohoretan festa eder hau muntatu eta beronetara deitu

gaituzulako. Larehun urte betetzen dira aurten Leizarragak euskerara itzulitako Testamentu Berria argitara eman zela. Urte muga hau ezin utz ziteken zerbaít gogoangarri egin gabe.

Izan ere, euskal literaturaren kondairan Leizarraga erraldoi bakarti baten antzera nabarmentzen zaigu. Gailen eta bakan. Asko aldetatik zordun gara euskaldunok Leizarragarekin, eta ez da hau une txarra zor hoiek aitortzeko, eta geure aldetik ere ordainez hari zerbaít ohore bihurtzeko.

Bai. Leizarraga izandu zen euskal prosari hasiera eman ziona. Bide urratzaile dugu, beraz. Hastapen guztiak gaitzak izaten dira. Euskera, artean, prosa eta itzulpenetan sekula erabili edo usatu gabeko tresna zen, «sterila» berak dionez. Gidari bat, bide erakusle edo aitzindari bat ez duzunean, zerorrek egin behar duzu dena; behaztopak alde orotarik; bidea plaundu behar. Gainera, euskera den bezalako hizkuntza izanik, hain bakarra eta hain tipia, inguruneko hizkuntzekin ahaidetasunik gabekoa, korapiloak eta istiluak gainezka datozkitzu. Izigarriak izan ziren Leizarragak eta honen laguntzaileek burutu behar izan zituzten lanak, gaindu behar izan zituzten traba, neke eta behaztopak.

Eta hauxe da ni gehien harritzen nauena. Gaur haren obrak eskutan hartzen ditugunean, miretsirik gelditzen gara. Perfetasun maila handi batetara heldu baít zen. Ez. Leizarragaren obrak ez dira nolabaitekoak. Ez dira arinki eta gaingiroki eginak. Han ez da xehetasunik falta. Aitzin solasak, oharrak, aurkibideak, eskeintzak, Zuberoko herrian usantzatan ez diren hitzen taula, ta abar. Dena duzu txukun, dena ongi landua eta burutua. Erreginaren aginduz egindako lana zen, eta ez zen nolanañi egin behar. Jainkoaren hitzari, erreginari eta euskal herriari zerbitzu egin nahiz zebilen Leizarraga, eta obrak ere halakoxeak atera zitzaizkion: alde guztiz onduak, osoak, perfetasun harrigarri batez burutuak, umoak.

Ez naiz hemen hasiko Leizarragaren hizkera eta eskribatze moldeak ikertzen. Badira gaur hizlari jakintsuak, hortan harituko direnak. Gure artean dugu batez ere Lafon jauna, gure literatura zaharra zilatzen hain lan merezigarria egin duena. Jaun honen liburu gotorra «Le système du verbe basque au XVI ème siècle» Leizarraga ikertuz egin den lanik sakonena dugu, noski. Jaun hoien aitzinean isilik ego-tea, entzutea eta ikastea dagokigu guri.

Hala ere, hitzño bat bederen esango dut Leizarragak gaur guretzat duen balioaz.

Egun euskaldunak euskeraz eskribatzeko batasun baten bila gabiltza. Eskribatzeko molde berdina behar dugu, hizkuntza guztiek duten bezalaxe. Nola heldu, ordea, batasun hortara? Hortan dira kontuak. Euskera mintzatua tokitik tokira desberdin da, eta gizalditik gizaldira ere bai, guti asko behintzat. Eta eskribatzaile bakoitza, bere zuloan sarturik, bere xokoko erara eskribatzera jartzen bada, orduan, bistan da, batasun hori ez dugu sekula erdietsiko. Gero eta zatikatuago, elkarrengandik aldenduago eta urunduago egonen gara. Hori gerta ez dedin, zer egin behar dugu? Euskalerrria batasun bat bezala hartu. Euskaldun guztiek, hangoek eta hemengoek, lokarri bat behar dugu: hizkuntza literario batua (edo batu antzekoa, behintzat). Bestela, zatikatuak, barreiatuak, bat bedera bere zuloan sartuak bagabiltza, euskera ez da izanen deusetako gai. Birrinduak, parzelatuak eta atomizatuak hilen gara. Gaitz hori ekarri dugu euskaldunek mendez mende, eta goizetik gauera erremediatzea ez da erraza izango.

Baina gogoa izatea zerbait da. Batasunaren gogoa, desira, nahi bizia indar handiz sortu da gaur euskaldunen bihotzetan.

Gogoa zerbait delarik, ez da aski, ordea. Xedea ere, helburua edo jo muga ere behar dugu, aztamuka eta itsu itsuan ibili nahi ez badugu. Eta hortarako euskerak izan dituen autorerik zaharrenak, euskal prosa trenpatu eta trebatu zutenak, balio apartekoa dute.

«Arkeologista» esanen du zenbaitek irriz eta trufaz. Baina nik halakoari bista laburretakoa dela esango nioke. Ez gara arkeologistak, ez. Baina antzinatasuna titulu bat da batasunaren etxea muntatzeko. Eta hori, besteak beste, arrazoi honegatik: iraganean hurbilago geunden euskaldunak elkarrengandik, orai gauden baino. Orainagoko denboretan, berriz, geroago eta elkarrengandik urruntzenago joan gara. Beraz, antzinatasuna elkarganatzeko bide bat da. Eta euskal eskribatzaile zahar hoien artean, Detxepare eta Leizarraga ditugu lehenbizikoak.

Gure aldeko Euskalerrrian gaur, batasun hori egin nahiz, euskeraren eskribatzaile zaharrei kasu egiten enseiatzen eta permatzen gara. Zuek ere beste hainbeste egiten baldin baduzue, urrats handi

bat egniik genuke, eta hori ez egiteko ez duzue arrazoirik, euskera-  
ren idazlerik zaharrenak zeuenak bait dituzute, zeuen etxeoak.

Antzinatasuna, ordea, bera bakarrik, gaurkotasunetik apartatua,  
hori ere ez dugu behar. Gaurko arazoetarako behar dugun tresnak  
gaurko euskera bizian behar ditu sustraiak. Horregatik, Euskaltzain-  
diak batasunerako hautatu duen bideak bi harroin edo pilare hauek  
ditu: alde batetarik antzinatasuna eta bestetik gaurko, egungo eus-  
keran ere sustraiak izatea. Lur fermo hontan nahi dugu oina finka.  
Eta lan hontan Leizarraga bezalako idazleek berebiziko zerbitzua  
egiten digute.

Leizarragak badu oraindik, guri irakasteko, beste leziorik. Hark  
ez zuen euskera bere buruaren kontenplatzen euki nahi, bere xokoan  
sartua eta gordea. Europako kulturari ateak idiki zizkion. Zubi bat  
ezarri nahi zuen Okzidenteko kultura eta euskeraren artean. Zori-  
txarrez jarraitzaile guti izan du. Euskera landu dugunok, gehienetan,  
euskera hertsia erabili nahi izan dugu, huts garbia, aratza, kanpotiar  
usainik gabea eta erdera kutsuren fitsik ez duena, bainan purismu  
amorratu horrekin ez ote diogu euskerari mintzabide egoki bilaka-  
tzeko bideak hertsia? Ez dut nik esaten Leizarragak erabiltzen dituen  
erdal hitz guztiak onestekoak direnik. Baina puntu hontan natural-  
tasun osoz, bat ere konplejurik gabe jokatu zen. Europarrak gara  
euskaldunak ere, Okzidenteko kulturaren seme, eta inguruneke hiz-  
kuntzetan onarturik ikusten zituen kultur hitzak beldur gabe onar-  
tzen zituen, etxeko bihurtzeko asmoz. Eta hori egitean, behar genu-  
ken bidea ez ote zigun agertu?

Horra, bada, zer eta zenbat dugun Leizarragandik ikasteko.  
Jarraibide bat agertu digu. Eta orain ere haren obrek sostengu, ba-  
bes eta oinarri baliotsua eman dezaigukete.

Hitzerdi bat oraindik, bukatzeko, nahiz eta hizkuntzaz zer iku-  
sirik ez duena den. Leizarraga kalbinista zen, hugonota. Baina giris-  
tino suharra, hala ere. Guztiok dakigu erlijio gerrek zer eta zenbat  
sarraski, hilkintza, ondamendi, negar, gorroto eta sumindura piztu  
zuten. Eta hori bat bedera bere konzientziari jarraikiz, eta Kristori  
leial egon nahiz zebilela. Zorionez, gerla eta etsaigoa hoiien garaia  
ere sekulakotz gainditua dela uste dugu. Elkar errespetatzen eta bat  
bederak bere lagun hurkoaren konzientziari zor dion begiramendua  
izaten ikasi dugu. Eta nahiz katoliko nahiz protestante nahiz beste,

loriatu rik gara gaur denok, anaitasunik ederrenean, Leizarragari gozatarre hau eskaintzen. Halaxe izan dedila gaurgero eta betikotz.

Eta berriz ere eskerrak bihurtzen dizkitzugu zuri, alkate jaun horri, jaialdi eder honen parada eman diguzulako.

Beskoitze, 4-7-1971

## JOANES LEIZARRAGAREN GARAIA

### *Nere gaia*

Nere gaiari eldu baino leen, argitasun bat edo beste eman bearean nago. Leizarragaren garaia aipatzean, ez dut aren mendea alde guztietarik artzeko asmorik. Ez dut aipatu nai ez orduko gerraterik ez beste olako borrokarik. Leizarragak egin zuen lanak berak erakusten du argi aski nolako egoeran bizi izan zen, zer auzi ta gudukak zeuden egun aietan Euskalerrian bertan, bai erlisionearen aldetik, eta bai politikaren, erri-agintzaren aldetik. Ez dut eremu ortako tirabiarik ukituko. Laburragoak dira ene xedeak. Leizarragaren inguruko euskal-giroa edo euskal-literatura besterik ez dut argitu eta ikertu nai. Orra, leenbiziko argitasuna.

Eta ona bigarrena: Noiz asi ta noiz arteraiñokoa da Leizarragaren garaia? Ezpaitugu xeetasunik geiegi aren bizitzeko mugez. Mila ta seireungarren urte inguruan il zela dirudi. Baina noiz dugu sorrua? Aren sortzea noiz jar? Adin andira eldu omen zen. Beraz, ez ditugu konduak txit makur aterako 1530 garren urtean bizien artean genuela esanez (Lafitte jaunak esango zigun bere i tzaldian 1506n sortua zela).

Ortxe jarriko ditugu, bada, lan onen mugak ere. Ortxe, 1530 garren urtean asi eta 1600 garrena arteko urteetan murgilduko gara, ea euskal-literaturaren zeruan izarririk sortzen den, ea euskal-alorrik zer fruitu ematen duen, ea Leizarragaren aitzinetik eta ondoren nor ta nolako idazleak agertzen zaizkigun; labur esateko, nolako euskal-giroz eta idazle lagunez inguraturik ikusten dugun Berazkoizko seme argia.



*Leizarraga ez dago bakarrik*

Nere lanaren mugak onela jarririk, lot nakion gaiari. Eta, leenik, esan dezadan Leizarraga ez dagoela bere garaiko euskal-literaturan lagunik gabe. Ez da bere aldiko euskal-idazle bakarra. Ez leena ere.

Munduan barna dabilta Unamuno euskaldun erdal-idazlearen liburuak, eta oietan irakur dezakegu, ez bein bai berritan, orain laurreun urteko *Testamentu Berria* dela euskal-liburuetan leen argitaratua. Egiaz, bere buru ain jakintsu egiten zuen gizonarentzat makur andiegia da ori.

Leizarragak berak ere bazekien, eta nolabait aitortu zuen, ez zela bera euskaraz idazten leena. Gure mintzaera ainbat puskatan zatitua aurkitu zuela dio; baita ere gutxi landua, baina ez batere landugabea. Ori esan nai zuen, noski, gure izkuntza «sterilenetarik eta diversenetarik» dela esan zunean. Baina irakur dezagun urrengo lerroetan dioena: «eta oraino, translationetan behintzat, usatugabea». Beraz itzul-lanetaz kanpo, ez zen euskara usatugabea; nolabait usatua zen. Leizarragak *Testamentu Berria* itzuli baiño leenagotik bazen euskarazko libururik eta euskal-idazlerik.

Berak ez digu inoren izenik eman, baina oker andirik gabe esan dezakegu Etxepareren liburua ezagutzen zuela. Ez du izenez aipatu. Bear bada, bein erlisione berrira iragan zenez geroztik, Eiharalarreko erretoraren liburua ez zuen bere gogarakoa. Ez da arritzekoa. Ebangelio utsetik bizi nai zuenak ez zezakean onartu Etxeparek egin zuen liburuaren mamirik ez muinik. Baina liburu ori dena euskaraz sortua ta egina zen; ez zen «translationea», ez zen beste inongo izkuntzetarik itzulia. Agian, bada, liburu ori zuen gogoan Leizarragak arestian aipatu itzak idatzi zituenean. Eta ez ote zuen Etxeparek Beraskoizko semea euskalzaletu? Ez ote zuen Eiharalarrekoak Leizarraga bere irrintzinen jarraikitzaile egin?

Nola nai den, Leizarragaren garaia ikertzean, Etxepareren izena ez dezakegu atera gabe utzi.

*Etxepareren lana eta irrintzina*

Etxepare du gure literatura urriak bere argi-astearen xori kantari, bere udaberriaren berri-emaille. Eta ezin egokiago datorkigu gizon au bere lanarekin Leizarragaren garaiko berri emateko.

Nik ez dakit apez euskaldun onen irrintzina Euskalerriko bazter guzietaraino eldu zen ala ez; baina bai orduan asi zela Euskalerrri osoan kezka berri ta berdintsua zabaltzen. Etxepareren oiuari Euskalerrri osoak erantzun, iardetsi ziola dirudi. Eta ez balinbada ere izan kezka berri eta oldar berri orren sortzailea, esan genezake beintzat bera izan zela suztatzaille, bera izan zela guzien kezkak bildu eta mamitu zituenta, bere oiujakina aurtiki zuenean: «Heuskara, ialgi adi plazara; Heuskara, ialgi adi kanpora; Heuskara, habil mundu guzira».

Au dugu Etxepareren irrintzina, oiujzaguna. Eta geroztik, gure erria oiuj orri erantzun bearrean dabilala dirudi. Geroztik, beti ditugu euskaldunen batzu Etxepareren dantza ortan sartu nairik. Euskaldunak bakarrik ez; arrotzak ere bai. Dantza onen gidari, dantza orren profeta edo ots-emaile, Etxepare zaarra dugu.

Batzuk auresku, beste batzuk atzesku, batzuk euskaraz, besteak erdaraz, laster atera ziren gutxi batzu bederen euskararen dantza ortara, eta geroztik dantzak ez du etenik izan gure egunetara arte. Badabilta or ainbat euskaldun kezka jatorrez, kezka garbi eta lege onekoz, beren euskalduntasuna ukatu nai ez dutelarik, euskara landu eta kultur-izkuntza egin arte ezinegonez.

Or dabilta beste zenbait euskaldun, erdara joten dutela, baina euskara goretzi eta ezagutarazi bearrez, beintzat. Ola, gure berbizkundera delakoaren alderdi biak, argia eta illuna, or daude. Batzuen eta besteen profeta azaltzen zaigu Etxepare:

«Heuskaldun den gizon orok altxa beza buruia,  
ezi huien lengoajia izanen da floria.

Printze eta jaun handiek orok haren galdia:

Eskribatuz hal balute ikhasteko desira.

Oraidano egon bahiz inprimatu gabarik,  
hi engoitik ebiliren mundu guzietarik.»

Emen dira, bai, arrotzak berak, gure dantzan sarturik, euskararen inguru minguru, jakin-naiak ekarririk, gure izkuntzaren ezurmamiak azter bearrez.

Guzietarik bada gure egunetan, eta guzietarik bazen Leizarra-garen garaian. Guk aski dugu emen garai artakoen berri ematea.

*Euskararen asikinak, leen frutuak*

As gaitezen Etxepareren berriekin, gutxi bat bederen. Ez du geiagoren bearrik, ain baita ezaguna. Gure leen idazlea dugu, edo, beintzat, euskara inprentara eraman zuen leena. Berak ere bazekien. Liburuari ezarri zion liburuan ongi erakutsi zuen: «Euskararen asikinak, leen frutuak» ematen zizkigun (*Linguae Vasconum Primitiae*). Arrotasuntxo ori barkagarri du. Esan dezagun, gainera, kritikorik zuzenen iritziz, ahalkeizunik gabe, lotsaririk gabe, ager dezakeala gureak burua beste edozein izkuntzetan dituzten leen-liburuen aintzinean.

Baina, egungo au Leizarragaren omenaldia dugunez geroz, aipa dezadan ere, Beraskoizko semeak eta Eiharalarreko erretorak, biek zerbaitetan elkarrekin duten antza eta bien jokabide berdintsua. Euskal-alfabetatzearen aintzindari izan dira. Etxeparek onelaxe adiarazten du bere jokabidea: «Zeren orai zuk (onela esaten dio Lehete jaunari), Iaun noble eta naturazkoa bezala baituzu estimatzen, goratzen eta ohoratzen heuskara; zuri, neure iaun eta iabia bezala, igorten derauritzut heuskarazko kopla batzu, ene inorantziaren araura eginak, inprimierazi ditzatzun, eta zure eskutik orok dugun ioia ederra, inprimaturik heuskara, oraino izan eztena; eta zure hatse honetik dadin augmenta, kontinua eta publika mundu guzietara, eta baskoek bertzek bezala duten bere lengoajian skribuz doktrina, eta plazer egiteko, solas egiteko, kantatzeko eta denbora igaraiteko materia, eta jinen direnek gero duten kausa oboro haren abantzatzeko».

Etxepareren xedeak argi daude or. Leenbiziko irakurrgaia eskaintzen die euskaldunei gogoak argitu ta eskolatu ditzaten, zer ikasi, zertaz mintzatu, zer kantatu ta nola astia eman izan dezaten.

Leizarraga, ordea, ez da bertsolari, eta ez du kantarik egin ez bertsorik ondu. Ontan kalvinistek beste lekutan erabili zuten baino bide ertsia goa artu du, Luterok baino are askoz ertsia goa. Baina, crtaz bestalde, Etxepareren bidetik ez dabila urrun: aren kezka berdintsua du. Bere ABC deritzan liburuan onelaxe dio: «Berze nazione guziek, zeinek bere lengoajea bezala, heuskaldunak ere berean duentzat zertan irakurtzen ikas ahal dezan, eta nola Jainkoa ezagutu eta zerbitzatu bear duen, nezesario estimatu dut ABC haur bere ins-

trunkzionerekin Heuskaraz iar ledin. Eta, hunelakotzat, Jainkoak egin drautan graziaren araura, haren laudoriotan enplegatu izan naiz».

Orra idazle bi oien kezka berdintsua: euskaldunak zer irakurri izan bearra du, eta ortako biek lagundu nai dute.

### *Erdaldunak euskal-dantzan*

Besterik gabe, goazen Etxeparek sortu duen edo ikusi duen euskararen inguruko dantza ikustera:

«Heuskara da kanpora eta goazen oro dantzara».

Eta, leenbizi, or ditugu atzerrietako dantzariak:

Lengoajetan ohi intzan  
 estimatze gutitan;  
 orai aldiz hik behar duk  
 ohoria orotan.  
 Baskoak orok preziatzen  
 heuskara ez iakin arren;  
 orok ikusiren dute  
 orai heuskara zer den.

Dantza au Leizarragaren egunetan asia dugu. Bai latinez, bai beste erdaratan atzerrietako idazletan euskararen berri on emaile-rik bada.

Or dugu Marineo Ziziliarra. Latinez, eta Gaztelako erdaraz ere bai, liburu askoren egilea da, Etxepareren eta Leizarragaren egunetan. An or ibili denean, euskaldunik kausitu du nonbait, eta eiei galdatuz egin eta bildurik, or utzi zituen, bere liburuetan sarturik, euskal-iztegi labur bat eta zenbait aditz-forma. Bizkai-aldeko euskararenak dira.

Bizpairur urte geroxeago, or non datorren Gaspar Gómez, Gaztelako idazlea, euskal-kanta batekin, Perutxorena deritzan kantarekin. Orduko euskaldunek non-nai erakusten zuten beren jatorria. Aien erdal gaiztoa erdalerrri askok ezagutzen zuen eta ez ditugu gutxitan erdal-liburuetan aldaturik ikusten. Eta noiz edo bein ematen digute euskal-esaera eta kanta ederrik ere. Zordun gaude erdal-idazle orrekin Perutxoren au bildu eta gorde zigulako. Or ikusten dugu, leenbiziko aldiz, gure kanta zaarren asteko leloa;

Lelo lirelo zarai leroba!  
 Iaz zoegia nintzan,  
 aurten eroa.  
 Easo amorari  
 gaxo naizala,  
 nepaz natzala,  
 datorkedala.  
 Lelo lirelo zarai leroba!

Beste bat zorko diogu Lope de Vega idazle ain ugariari. Au ere Leizarragaren egunetako dogu, berrogei bat urtez. Berak idatzi zuen komedia batean bertso auk aurkitzen ditugu:

Zure begi ederrok,  
 ene laztana,  
 katibaturik naue  
 librea nintzana.

Erri-kanta baten puska, noski, au ere, egungo egunetan nonbaiten entzun dena. Arabako erri batean bildu zuen Azkuek, Aramaionako Olaetan, Lope de Vegak eman zuenetik oso gutxi aldaturik, *Baltzerana nazan arren* izeneko kantuan. Lope de Vegak, noski, Araba-aldeko euskaldunen bati entzun eta artu zion, Gaspar Gomezek Perutzorena bezala.

Garai bereko Prantziako literaturan ere bada olako euskal-pusketarik. Ezagunena Rabelais idazlearen liburu ospe andikoan dugu: Pantagrueli Panurgok esan itzak dira, beste izkuntza askotan esaten dizkion bezala. Izkuntzalariei buruausterik aski emanak dira. Rabelaisek ez du esan nongo izkuntzatan esanak diren; izkuntzalari erneago batzu oartu ziren euskaraz zeudela.

### *Printze eta izkuntzalarien dantza*

Aitzina doa euskararen ingurko dantza. «Printze eta iaun andiek orok haren galdia». Etxepareren esan au ere ez zen gezur gertatu aipatzen dugun garai artan.

Karlos, Alemaniako eta Espāniako errege andia, lekuko. Euskaldunetz inguraturik bizi zen, bai lege-gizonez eta bai beste morroiez, eta ez da mirestekoa euskara poxi bat ikasi bazuen. Bi aldiz,

gutxienez, ikusten dugu euskaraz mintzatzen, bein Nafarroako mandazai batekin, beste bein Sorabillako erri-jaunekin.

Arrotzak euskal-dantzara etorte ontan, or daude izkuntzalariak. Iru izendatuko ditugu, Leizarragaren egunetakoak irurak: Nikolas Landuchio, Smet edo Vulcanius delakoa, eta Escaligero; italiarra, Belgikakoa, eta frantsesa.

*Landuchio* dugu leenbiziko euskal-iztegiaren egillea. Euskaraz titulu auxe du: «*Bocabularioa ezquereaz jaquiteco, eta ezquereaz verba eguiteco. Mila ta bosteun da irurogueta vi urtean*. Oraintsu Agud eta Mitxelena jaunek argitara emana da.

*Landuchio* orren iztegian erdarazko itzak daude alde batean, eta bestean euskarazko ordainak. Geien batean, Bizkai-arabako kutsua dute nabarien. Landuchiok, bidez aurkitzen zituen euskaldunei galde eginez apurka apurka egin zuela dirudi. Baita ere badirudi askok errezegei ematen ziotela erantzune galde-egileari, eta bat batean erdal-itza ematen. Orregatik erderakadez beterik dago, baina ez itz jator eta jakingarririk gabe. Euskaraz duen tituluaren azpian, Leizarragaren gogarako itzak dakazki: latinezko *Soli Deo honor et gloria* euskarara onela itzulirik: *Jaungoikoai honra eta gozoa, ez besteri*.

*Josef Scaliger* delakoak izan zuen ar-emanik euskaldunekin eta eder iritzi zion gure izkuntzari. Garai bereko Aita Marianaren itz batzu ez baziren ere izan euskaldunen bearrientzat atsegingarri, Scaliger onenak oso bestelakoak ditugu. Ona emen, Etxeberrri Sarakoak euskarara itzuli zituen bezala: Euskarak «eztu barbarotasunik, ez ortz-karraskarik, ez eta ere ahogangazkorik; da hagitz emea, leguna eta ezitia; eta dudarik gabe hagitz zaharra, eta Erromarrak baino lehen parte hetan zebilana».

*Smet* edo *Vulcanius* delakoaren izena euskaraz *arotza* esan genezake. Bere *Parergon* delakoan, Jornandes-en liburuari ezarri zion eraskinean, euskararen berri eman nai izan zuen. Eta, ain zuzen, Leizarragaren aipamen beroa irakurtzen dugu bertan. Bere gaztetan, Españiatik ibilia zen, bi Mendozatarren morroi eta zerbitzari. Gero, bere errialdera itzuli zenean, kalvinista egin zen. Argi ta garbi dio euskara literaturarako gai dela, eta kultur-izkuntza bilaka daitekeala, Belgikako izkuntzaren einean. Eta gure izkuntza onen eredu zenbait eman nairik, iztegi laburtxo bat sartzen du bere liburuan, baita ere, Leizarragaren Testamentu Berritik arturik, *Gure Aita*, Jaunaren otoitza.

Leizarragaren azken-urteetan, (1597 gn) argitara zuen bere liburua. Eta Joana Albret, Nafarroako Erregina goraki aipatzen du eta kristau-agintarien eredu jarten, batez ere, Beraskoizko seme oni eragin zion Testamentu Berriaren itzulpenarengatik. Beraz, *Smet* onen izena eta Leizarragarena ezin egokiago daude gaurko omenaldi ontan batera.

### *Euskaldunen dantza*

Betor orain euskaldunen dantzari-taldea Etxepareren dantzara. Bi taldetan banatu bearko ditugu: euskaraz idatzi zutenen taldea eta erderaz idatzi zutenena: «Heuskara da kanpora eta goazen oro dantzara».

Dantzarako deia euskaldunentzat zen, leenik. Baina batzuk erdarara jo zuten euskeraren alde egiteko, edo ta euskararen ontasun batzu argitan jarrarazteko. Jokabide au artzen dute Bizkaian eta Gipuzkoaldean Garibaik, Pozak, Madariagak eta Iburguenek, Leizarragaren aldikoak baizik ez aipatzearren.

*Garibai* istoriari emana zen, eta artxibo zaarretan eta artxibo bizietan, erriaren esaera eta kantaetan istorigintzarako gaiak bilatzen oitua. Sekulako ona egin zion euskal-literaturari mende zaarretako kantak bilduz eta argitaratzeko gai utziz. Orrez gainera, esaera zaarrek, atsotitzak ere bildu zituen. Orrelako bi bilduma dauzkagu. Arrasateko seme argi onek beste Mondragoeko eskribau batek bildu bertsoak esan bearra daduka: *Gutxiagati parkatu*. Geiago ez emana du bere pekatua. Ala ere esker onez artu bear diogu eman duen puskatxoa.

Gutxiago balio du *Iburguen-Cachopin* delakoaren emaitzak. Batez ere, barkatu bearko diogu zaarrek zirelako kanta batzu berak ondu ta asmatu zituelakotz. Esaterako, *Lelorena* zelako kantua. Ala ere, aldi artako euskararen lekuko bezala, ez dira auek ere osotara gutxi-estekoak.

*Poza* Orduñako semetzat dago. Orduñarra zen, beintzat, legez, sortu, bear bada, Flandes-aldetan sortua izan arren. Lege-gizona zen, eta Unibersitateetan ikasten emeretzi urte egiña. Gero, Donostian urte batzuez irakasle izana, eta Bizkaitarren lege-gizon bezala, Bilbon lan egiña. Euskalduna zuen andrea, Laudioko alaba, eta berak ere euskararen jabe zela erakusten du. Erdarazko liburua utzi zigun eus-

karari buruz: «De la Antigua Lengua, Poblaciones y comarcas de las Españas». Utzi dezagun alde batera Pozaren tesis delakoa; ar dezagun, ordea, ematen dizkigun argitasunetan erakusten duen euskara. Euskal-iztegi txikitxo bat osatzeko aina badu. Orregatik, ez diogu ukatu bearko lekutxo bat mende artako euskal-itzen biltzailleen artean.

Eta, azkenez, Pedro *Madariaga*, Bizkaiko semea, gaztetarik Italian barna asko ikusi eta ikasia, eta gero Valenciako Universitatean Kaligrafi-irakasle. Antxe a tera zuen, ain zuzen, bere *Honra de Escribanos*, ortografi-liburua, Leizarragak Testamentu Berria itzultzea bukatu zuen urte berean. Madariaga Etxeparerekin bat dator: «Euskaldun den gizon orok altxa beza buruia». Euskalduntasuna ez du, ez, ukatu ez estali nai. Eta erdaldunek ere jakin zezaten euskararen berri, kapitulu bat sartzen du liburu ortan euskal-ortografiaz, «de la ortografía vizcaina», eta, bidenabar, euskarari buruz zenbait xetasun ematen. An ateraten dituen itz eta esaeretan argi ageri du Bizkaikoa, Arratiakoa dela bere euskara. Eta bertan egiten digun aitorepen batek arriturik uzten gaitu. Ezin du ikusi euskaldun erdalzalerik, edo euskaraz mintzatu nai ez denik, eta auxe dio: «Ni ez nauke nere euskaldunekin asarretu gabe, beren gutun eta ar-emanetan beren izkuntzaz baliatzen ez direnean; orrela askori sartzen die buruan ez ditekeala euskaraz ezer idatzi, izkuntza orretan liburuak ere idatziak direlarik».

Zer esan nai zuen azkenengo itz oiekin? Zeintzu ote dira Madariagaren aldiko euskal-liburu oiek?

Galdera onekin sartzen gara orain mintzaldi onen azkenean. Non dira Madariagaren eta Leizarragaren garaiko euskal-idazle eta euskal-liburuak? Galdera oni erantzuten, iardesten, saia gaitzen.

Aipatu dugu euskarazko leen-liburua, Etxeparerena. Berak eman digu aria mintzaldi ontako gaia nolabait orratu eta antolatzeko. Baiña Etxepareren lanaz gainera, zer besterik egin eta agertu zen garai artan?

Oraintzurarte iru libururen berri besterik ez genuen. Leizarragaren Testamentu Berria baino leenagotik, 1561n atera zen Iruñen Santxo de Elzo zenaren *Doctrina Christiana*, erdaraz eta euskaraz. Erdarazko titulua ezagutzen dugu eta ez zen nolanaiko liburu, andik ateratzen denez. Asko eskaintzen zuen: kristau-dotrina bakarrik



ez, janari egokia ematen zuen arimazaiantzat eta beste bizibide guztietakoentzat. Isastik eta Nikolas Antonio, bibliografo ospetsuak eman dizkigute aren xeetasunak. Orain ez dugu alerik ezagutzen.

Berdintsu gertatzen zaigu beste dotrina batekin: Betolaza-renarekin. Bilbon, Leizarragaren azken-urteetan argitaratua dugu, 1596gn urtean. Erdaraz eta Bizkai-aldeko euskaraz idatzia da, Kalahorrako apezpikuaren aginduz argitara emana. Apezpiku onek, Pedro Manso izenez, urrengo urte batean legea jarri zuen urtero atera bearke zirela olako dotrina-liburuak bere mende zeduzkan errietako euskaraz egiñak. Aipatu duguna besterik ez da eldu gure ezagutzara. Oraintsu artean ale bat bazen, eta onen kopietarik ezagutzen dugu orain.

Urte berean, 1596n alegia, agertu zen Iruñean beste liburu bat, euskararentzat balio andiena duena. Erdaraz darama titulua: *Refranes y sentencias*. Baina euskarazko erran zuhurrez, esaera zarez osatua dago, euskarak erdarazko itzulpena duela aldamenean. Nor ote zen aren biltzailea? Garibai ez ote zen diote barzuk. Gauza ziurrik ez dakigu. Baina liburu onenik ere ez zaigu alerik gelditzen. Alemaniako iri batean, Darmstadt-irian, zegoen ale bakarra azkenengo gerratean erre omen zen. Zorionez eta alabearrik, andik atera ziren kopiei esker ez dugu osoki galdu. Orraitio, Alemanian erre zen ori ere ez omen zegoen osorik. Oihenarte andiaren paperetan agertu dira oraintsu erran zuhur batzu, eta, Mitxelenaren iritziz, amaseigarren mendeko bilduma artan falta zirenak izatea baleiteke.

Eta au de emen sortzen den galdera: Ez ote dira orrelaxe beste libururen batzu ere galdu? Ez ote da egia Madariagak esana, alegia, aren denboran, Leizarragak Testamentu Berria atera baino leen beraz, ba zela euskal-libururik? Eta, ain zuzen, badirudi Madariagak ez zuela, esaterako, Etxepareren liburua ezagutu, aren egunetakoa izan arren. Besteren batzu dira, dirudienez, ark aipatu nai dituenak.

Goiko galdera orri baiezkoa eman bearrean gaude! a uste dut. Beste libururik eta beste idazlerik ere izan genuela esan bearra dugu, noski baino noskiago.

Azken urte auetan agertu zaizkigu mende artako idazle geiago ere. Orrela dakigu beste lau idazleen zenbait berri, bi mugaz alde batetik, eta beste aldetik beste bi. Lau izen berri daduzkagu Leizarragaren lagunartean sartzeko. Laurak bertsogintzan aritu ziren.

Oihenartek emandakoen izenak auek dira: Joanez Etxegarai eta Arnaut Logras. Etxegarai Donibane Garaziko semea omen zen, eta

Leizarraga Testamentu Berria euskararatzen ari zen aldi berean omen zebilan idazten. *Artzain Gorria* izeneko pastoralaren egilea omen da, eta beste liburu bat ere, bertso-bilduma bat ere utzi omen zuen, Etxepareren tankeran egin bertsoekin.

Logras ere apezgoan kargu andiak izana dugu eta Oihenartek ikusi omen zuen onen bertso-bilduma bat ere.

Oraintsu jakin dugu Nafarroako idazle baten izena ere: Amendux, euskal poematxo baten egilea beinik bein.

Eta berrikiago izan dugu Nafarroako ermitau baten euskal-poemen berri. Joanez Undiano du izena. Leizarragaren mendekoa da au ere, eta eus euskaraz eta erdara zidazle. Amaseigarren mendea bukatzerakoan, ba omen zedukan euskarazko olerki-mordo bat egiña. Eta bere testamentuen auxe aitortzen zuen: «Alaber, bertsorik anitz ondu du euskaraz, eta erdaraz ere bai zenbait, arimaren onerako gaietaz». Eta berriz gaude auen arrastorik bat ere gabe.

Zalgitzeko jaunaren poemen aztarnarik gabe gauden bezala. Eta onek ez ote du Leizarragaren garaiko idazleen artean aipatua merezi? Aren izena daraman atsotitz-bilduma eldu zaigu eta, Oihenarten iritzian, poetarik andiena genuen euskal-poeten artean:

*Halakotz, hik, Zalgiz, eskaldun Poeta,  
burura behar duk erramu-boneta,  
zeren, nola baihaiz Parnaso gainean  
bederatzi abizpez maiteki bazia,  
heiek erakatsiz hik, gur'adinean,  
burutar'eman duk bertzek doi-basia.*

Ez dakigu noiz eman zen bertso-lanetan; nola nai ere, Leizarragaren garaian sortu eta azia da.

\* \* \*

Eldu naiz azkenera. Etxepareren euskal-dantzara aterarik, emen ikusi ditugu erdal-idazleak euskarari beren agurrak egiten. Emen ikusi ditugu atzerrietako izkuntzalarien piko ta jauziak gure euskararen inguruan. Emen, gure erdal-idazleen atzeskua; emen gure idazle jatorragoen, euskal-idazleen aureskua.

Gogoan ar ditzagun guzien izenak: Etxepare, Elso, Etxegarai, Amendux, Logras, Garibai, Betolaza, Undiano, Zalgitzeko jauna. Ez

dezagun ahantzi guzoi sortzea eman zien gure Euskalerra, Euskalerra osoa, orduan askoz zabalagoa eta euskarari atxikiagoa, eta bere esaera zuur eta kantekin euskal-dantza ortako dantzari gailen eta jatorrena. Guziak ekarri ditugu ona, emen, Leizarragaren omenez, bakoitzak bere ingurutxo dantza dezan. Guziek asi zuten euskal-literaturaren udaberria.

Eta orduan asi dantzak gaur arte iraun du, eta gaur ere aitzina doa. Orduan sortu giroak ez ote dirau, orain ere, gutxi gora beera? Orain ere bada atzerriko izkuntzalari euskarari tinki atxikia denik, gure izkuntza ikertu eta ikasi bearrez. Euskalerra badu oraino erdal-idazlerik, euskararen alde bere luma zorrozten duenik; badu, eta au are pozgarriago da, euskal-idazle zintzo eta pizkorrik ere. Leizarragaren aldiko alderdi onak eta txarrak batera daduzkagu. Ez ote dugu urrats oberik eta aitzineragokorik emango?

Etxeparek bere amesetan euskarari opa zion udaberria ez zen egiaz izan berak nai zuen bezain loretsua. Baina oinarriak jarri zituen beintzat. Asiera, astapena eman zion udaberriari, berak aitortu zuenez, astapena aula izan bazan ere: *debile principium*.

Etxeparek eta beste lagunek, nola nai ere, egin zuten orduan al zutena. Guri, XX garren mendekoei, geiago eskatzen zaigu, eta geiago egin dezakegu. Ez gaitezke beti astapen auletan gelditi.

Egia billakatuko al da Etxepareren esana: *Astapen aul onek izan bera, ondorio ohea*. Ortara jo dezagun, ortara saia gaitezen guziok *asmoz eta jakitez*.

Lino AKESOLO

## ZER DAKIGU LEIZARRAGAZ?

Lapurdikoko Beskoitze herrian bazen Mendizelaia deitu larregain aberatsean etxe eder bat, Leizarraga erraiten zitzaiona. 1944-ean lehertu zen, orai haren lekuan ez baitira gelditzen harri-lauza nakar batzu baizik: bertzeak bide harriztatzen baliatu dira.

Egoitza hortan, menderen mende, Liçarrague edo Lissarrague izeneko familia hainitz sortu dira, Eskual-herrian eta Eskual-herritik kanpo ere norbait izan diren gizon zombait eman dituztenak.

Ezagunena naski Leizarragako Joanes, egun, 1971-ko uztailaren 4-ean goresten dugun eskualzale zaharra.

Barzelona-ko Protestanten Carta Circular delakoan Juan Mirena Olaizola jaunak dionaz, Joanes hori sortu zen 1506-an edo nunbait han. Eta zendu, hamazazpigarren mendeko lehen urtean.

Laurogoi eta hamabortz urteren bizi, bada zerbait.

Hain bizitze luzeko gizon batez iduri luke baginukeela zer nahi erraiteko. Zorigaitzez, orai arte bildu ahal izan diren hamaseigarren mendeko paperek ez daukute utzi Leizarragaz herri guti baizik.

Hasteko, ez dakigu haren arbasoen ez aita-amen izenik.

Ez dakigu zonbat urtetan bere burua apez-gai senditu zuen, ez eta nun zuten eskolatu.

Haren liburuetarik ezagun da bakarrik etxeko eskuararen gainerat, funski ikasi zituela latina, greka eta frantsesa. Españolari ere baditake ohartua zen, urruntxago ikusiko dugun bezala.

Jakes Bela famatuak bere Tablette-tan salatzen dauku Leizarraga Lapurdiko apez katoliko jakintsu eta kartsuenetarik izan zela. Haatik ez da nehun ageri zoin herritan izan zen bikario edo erretor, ez eta zonbat urtez.

Hain guti erran dezakegu noiz nola lerratu zen Protestanten sinestetarat.

Luthertiarren hatzik ez dugu hemen gaindi kausitzen mende hartako berrogoi lehen urtetan. Handik goiti ordean, bai, erlisione berriaren hedatzaileak ikusten dira ipar-Eskual-herriko jauregietan, apeztegieta eta burgesen etxetan ibilki; buruzagiak eta handi-mandiak nahi dituzte lehenik bildu, gero jende xhekek aiseago jarraiki-zen zaiotelakoan.

Horrela biltzen dituzte beren saretara, berzeak bertze: Bidaxuneko Agarramont, Makeako Belzuntze, Meharineko jauna, Xuberoko Sponde, Belapeyre, Zalgiz, Bela familiak, baieta zonbait apez, gehienak Xubero-aldekoak.

Jaun horien guzien buru, Agarramont ahaltsu eta amorratua, Jeanne d'Albret erreginaren laguntzale kartsua.

Theodore de Bèze-k bere orroitzapenetan, nahiz ez duen izenik emaiten, aipatzen ditu zonbait ministro eskualdun Geneve-n eskolatu eta moldatuak: sort-herritik urrun atxikitzen bide zituzten ixtan

bat, bereziki erretor ohiak, Calvin-en erakospenez hazirik, gogobihotzak arras berri eta bero zakizkioten.

Ritter Paueko ixtoriotzale jaunak uste du Leizarragak ere, Eliza katolikoa utzi ondoan, Eskual-herritik lekuak hustu zituela norapait.

Bainan, nun ere kokatu baitzen, han berdin etsaiak aurkitu zituen: Testamentu berri-ko aintzin-solasean, Jeanne erreginari berak aitortzen zion preso eman zutela, eta orduan jasan penez orroitzean, buruko ilea lazten zitzaiola.

Nun, noiz, zer pairatu zuen, ez du salatu.

Ez guri galda ere nola atera zen delako presendegitik, ala etsaiek joaiterat utzirik, ala berak gisa bat edo bertze ihes eginik.

Badakigu halere 1563-an Lapurdin zagola. Urte hartako martxoaren 14-ean Paueko Sinodak (erran nahi baita Protestant buruzagien biltzarrak) hauxe zion hitzez hitz: «Lapurdin bizi den Leizarraga jaunari mezutuko zaio hunat etor dadin, Testamentu berriaren, otcitzen eta Katiximaren eskuaralat itzultzeko; eta, nahi badu bere burua (ebanjelioari) osoki eman, bere eskualdean edo Baxenâbarren minixtro izaitera prestatzeko. Eliza-kontseilukoen gain izanen da haren mantenatzea, Erreginak nahi duen ber hura hunat etortzea.»

Leizarragak aitor zuen, baizik-eta Biarnorat joan aintzin azpitik zaukaten gogo-arranguretan bizi zela, ez jakinez naski bide onari lotu zitzaion ala gaixtoari. Biarnon, itxuren arabera, bakea aurkitu zuen, alde hortarik.

Bizkitartean ez omen zen aise menturatu Testamentu berriaren itzultzerat. Huts egin beldurrez duda-mudan egin-eta, behin entseatu zen; bainan, laster etsiturik, lana utzi zuen bertze batek egin zezan.

Baziren alabainan hor gaindi protestant eskualdun idazlariak. Huna nundik dakigun hori. Begi atxikitzeke higenauten harat-hunateri, Espainiako erregeak ezarri zituen barrandariak ipar-eskual-herrietan. Barrandari horiek Madrillerat igortzen zituzten ikasi berriak. Heien gutuneri esker badakigu hedatzen zirela, eskuaraz, Luthertiarren liburuxka batzu. Damurik ez baitzaiku hetarik batto ere eskuetarat erori!

Heien itzultzaleak, nor baziren ere, ez bide ziren on, handiagoko lan bati lotzeko.

Agarramunt, Belzuntze, Meharine jaunek eta zonbait adixkidek

Leizarraga hazkarki sustatu zuten, ez etsitzeko; eta berriz egundainokotan hartu zuen bere saila, jo eta ke zeramala.

Bi urteren buruko eginxea zuen.

1565-eko maiatzaren lehenean, Oloron-eko Sinodak erabaki zuen Leizarragak handik goiti eskuratuko zituela berrehun libera, ministro donadoek bezala, ez baitzen bera ere ezkondua. Eta izendatu zituzten lau minixtro eskualdun, haren lanaren begistatzeko eta behar orduan xuxentzeko.

Lauetarik biga segurik xuberotarrak ziren: Landetcheverry Undüreñekoa eta Tartas Sohütakoa. Etcheverry, «Petit basque» erraiten ziotena, kostatarra zen, Donibane Lohizunekoa. Laugarrena, Tardets, ez dakigu xuxen nungotarra zen, deituraz xuberotarra iduri lukelarik.

Lau so-egile horiek pagatuak izanen ziren lan horrentzat: eta lanak iraunen zioteno, ez zuten beren elizetan predikatzerik izanen igandetan baizik.

Ondoko irailaren 5-ean, Salbaterreko Sinodan, Etcheverry-k eman zuen Testamentu berriaren berri. Ala funtsez ala moldez lana hautuzkoa zaukan. Billkurako minixtroek hitz eman zuten beraz haren ager-arazteko dirua.

Bizkitartean, eskuara toki orotan ez berdin izanez, bortz lagunek eskatu zuten lanaren arra-hunkitzea Eskualdun gehienek uleritzeko gisa. Biltzarrak on-hartu zuen eta erabaki begistatzaleak eta Leizarraga aintzina ordainduko zirela Elizaren dirutik.

1566-an eta ekainaren 5-ean Nay-eko Sinodan nasaiki aipatu zuten Leizarraga, baizik-eta Jainkoak dohainez bete zuela, eta grazia hoieri esker Jainkoaren ospea bere eskualdean aise aintzin-araz zezakela. Ikusi behar ere, ez zenetz Nafarroarat berdin igorriko. Xede horren gatik bagaude ea española ere ez zakienetz, nahiz orduan eskuara orai baino hedatuagoa zen Nafartarren artean.

Ondoko urtean, 1567-an, Leizarragak Pauen minixtro-gaien et-saminak pasatu zituen eta minixtro egin zuten, apirilaren 15-ean Bastidarat izendatzen zutelarik.

Bastida (erdaraz La Bastide-Clairence), bere portu ttipiarekin, Baxenabarreko herri bat zen, frango ttarroa, kaskoin kofoin bat, nahiz (paper zaharrak lekuko) Eskualdun hainitz ere bazaukan.

Hiru minixtro protestant baziren hirixka hortan, zeren zen Lapurdiko muga-mugan eta bertzalde Bidaxuneko Agarramonten gerizapean.

Gainera, Beskoitzetik ez urrun, toki hauta zateken minixtro berriarentzat.

Bastidarrak jende maltsoak ziren. Izanik ere erlisioneaz bi artalde, elgar jasaiten zuten hisiarik gabe. Bainan ordu arte herriko eliza, katoliko xoilan eskuetan baitzen, Erreginaren manuz erabaki zen handik aintzina izanen zela bai katolikoek bai protestanten zerbitzuko, tenoreak aldizkatuz.

Hortik sortu da fama Leizarragak berak egiten zituela Bastidako elizan bi zerbitzu: batto katolikoentzat meza emanez, bertzea protestantentzat kultua segurtatuz. Bainan, Haristoy zenaren eleak eletei, ez da nehun deus holakoren frogarik.

Tardets izan baitzen bortz urtez Bastidako lehen minixtro, haren lekua eman zioten artzain berriari. Bizkitartean denbora batez ez zen Bastidan iragan ager-itzalka baizik.

Roxelan bazuen aski lan, hantxe bere eskuarazko liburuak inprimatzen baitzizkaten Hautin baitan, eta hango nehork eskuararik ez jakin.

Liburuak erran dut eta ez Liburua. Ezen, Testamentu berriaz bertzalde ager-arazten baitzituen, datxizkola edo berex, bertze dotzena bat obra.

Horiek oro —mila plamaz goiti —agertu ziren urte berean, 1571-ean.

Paueko Sinodak orduan erabaki zuen Leizarraga alde bat jarriko zela Bastidan.

Handik bi urteren buruan, urriaren 13-an Sinodak itzuli ziozkan 50 eskudo, Hautin jaun inprimatzaleari aintzinatua. Bertzalde 335 libera-iguzki xahutu zituzten Roxelan, orotarar heldu baita: orai-ko 10.600 libera berri, frantses dirutan.

1574-ean Paueko Sinodak igortzen diozka hiru mutiko, Tartas, Landetcheverry eta Tardets-en semeak (minixtro gai gisa dudarik gabe), Bastidan harekin eskuararen ikasteko. Bagaude ez ote zen izan eskual ikastoletan lehen-lehena!

Denbora berean Sinodak batzorde batzuen gain emaiten zuen Testamentu berriaren hedatzea: hedatzailek beren lanaz kondu emaitekotan.

Ez da ondikotz nehun ageri nork zonbat saldu edo banakatu dituen, ez eta orotaratz zer keta izan den irarkolak aterarik.

Egia erran, bi jalgi-aldi edo edizioe izan direla uste dute liburu ale batzuetan hitz zenbait ez baitira bertzetan bezalakoak. Bainan nola jakin zenbanakoak izan ziren jalgi-aldi hoik?

1575-etik aintzina protestanten paperetan ez dugu Leizarragaz deus hain berezirik ikasten. Bastidan bizi zela, bai: artetan sinodetan agertu zela, ere bai; eta l'*Antique* eman ziotela izen-goitia.

De Thou famatuak Thumeri adixkidearekin egin zion bisita bat, gizon bikain bati bezala, eta ordainez minixtro zaharrak present eman zion bere Testamentu berria. Hori gertatu zen 1582-an.

Leizarraga 1598-an oraino mundu huntan zela frogatutako, bertze xehetasunik gabe. Bainan nun noiz nola hil zen, ezin erran, lekukotasun eskasez.

1602-tik harat segur gira ez zela Leizarragarik; haatik ez dakigu nundik atera duten 1601-ean zendu zela.

Dakiguna da, Bastidan erlisione berriak ez zuela biziki iraun: 1625-ean ez zen minixtrorik ere gelditzen.

Zer nahi den, Leizarragaren eskuarazko obra hor dugu, arbasoen mintzaira zaharraren lekuko. Jakintzuntzat ez da abantail ttipia, René Lafon jaunak erranen dautzuen bezala.

Berant bada berant, egun bederen denek eskerrak diozkagu bihotzaren erdi-erditik. Nik segurik bai...

P. LAFITTE.

Beskoitzen, 1971-eko uztailaren 4-ean

## JOANES LEIZARRAGA, ITZULARIA ETA IDAZLEA

Guziek badakite eskuaraz idatzi eta argitaratu zen lehen liburua dela «Linguae Vasconum Primitiae», Bernard Dechepare erretor-olerkariak ontua. Egileak presuna bati bezala eskuarari erraiten zioen: «Heuskara, jalgi adi kanpora, plazara, mundura, mundu guzira!» Haren liburua ez zen jalgi, ez eta eskuara. Ale bakar bat heldu zaiku. Hogoietan eta sei urte eskuara oraino gorderik egon zen. Hogoietan eta



sei urtheren buruan, ez goizago, berriz agertu zen eskuara, hiru imprimatu libururen itxuran, Rochellan, Pierre Hautin Imprimizalea baithan. Izendatuak dire: «Jesus Krist gure jaunaren Testamentu Berria», «Kalendrera», «ABC, edo Kristinoen instrukzioea othoitz egiteko formarekin».

Julien Vinson'ek erraiten zuen ezagutzen zituela Leizarragaren obren hogoi eta sei ale. Hetarik bat Baionan, hiriko liburutegian, aurkhitzen da. Hugo Schuchardt, eskualari handiak, Theodor Linschmann lankidetzat zuelarik, mende hunetako hastean berean, Leizarragaren obrak, fotografiatzeko egin-molde batez itxuratuak argitaratu ditu. Sartzean, Schuchardt'ek ezarri lan luze eta balios bat. Hala eskual-ixtudioak azkarki lagundu ditu.

Minza gaitzen lehenik liburu hetarik ttipienez. «Kalendrera»k ez daduzka hamasei horri-alde baizik. Titulu osoa da: «Kalendrera, Bazko noiz daten, ilhargi berriaren eta letra Dominikalaren ezagutzeko manerarekin». Ez dakigu Leizarragak osoki itzuli duenez ala xoilki holako liburutto bat imitatu.

ABC izendatu liburuak daduzka ehun eta hiruetan hogoi eta hamasei horri-alde. Pharte bat, partikulazki Katexismeaa, khausitzen da ere «Testamentu Berria»n. Liburu hartan Leizarragak darabiltza *gizoner, guzier, dutener* formak, *gizonei, guziei, dutenei* formen lekhan. Esplikarzen du bertzetan usaia hau. «Datiuo singularian' *ari* erraiten dena, Zuberoan eta aldirietan pluralean erraiten da *er*, eta bertzetan guzietan *ei*: hala nola batez mintzatzeraz erraiten da Heuskalerri guzian *gizonari, emazteari, haurrari*: eta anhitzez mintzatzeraz, Zuberoan eta aldirietan *gizoner, emaxter, haurrer*, eta bertzetan guk heuskarazko translatione hunetan [erran nahi baita Testamentu Berriaren itzultzean], usatu ukhan dugun bezala, *gizonei, emaztei, haurrei*, eta eta.» Liburu hau itzulia da. Bainan zein liburutarik, ez dakigu. Nehork ere ez du holako libururik hatxeman ahal izan. Badirudi egileak bildu dituela, heien itzultzeko, mota hainitzetako idatzi batzu.

Bainan Leizarragaren lan handiena da «Testamentu Berria»ren itzulzea. Zer itzuli du titulu hunen pean? Bible batzu, Frantzian protestanten artean usantzatan zirenak, eta ez xoilki bi Testamentuen, ala baxharrik berriaren frantseserako itzultzea, bainan bertze idatzi frantses batzu, hala nola Calvin'en Katixima, «Testamentu berriko materien erideiteko taula», «Testamentu berrian diraden

izen propi Hebraiko eta Greko batzuen deklarazionea», «Testamentu berriko hitz eta mintzatzeko manera difizil bakhointz batzu bere deklazionekin», Liburu hetan Testamentu berriaren frantseserako itzultzea berriz ikusia eta zuzendua izan zen Geneva'ko ministroek. Leizarragak itzuli du ere «Jesus Krist gure Jaunaren Ebanjelioko doktrina puraren araura bizitzeko desira duten Franzesek konsentimendu komun batez beren fedez egin duten konfesioean». Leizarragaren liburuaren hatsean erideiten dire, aintzin-solas gisa, hamar horri-alde, bortz eta erdi frantsesez, bortz eskuaraz, han eskaintzen baitio liburua, «Guzizko Andre noble Joanna Albrete Nafarroako Regina Bearnoko Andre gehien eta eta, denari, bere zerbitzari guzizko xipiak eta guzizko obedientak, Joannes Leizarraga Beraskoizkoak, Jesus Kristen grazia eta bakea desiratzen». Ene us-tez, ez da errez erraitea eskaintzazko letra hau lehenik frantsesez, ala eskuaraz, ala, kasik batbatean, bi mintzaireraz pensatu eta izkiriatu zenez.

Orai, liburu lodi hunetan zer ez-itzulia da? Doidoia bizpahiru horri-alde: «Heuskaldunei», justu letraren ondotik, eta, asko urrunago, «Zuberoako herrian usanzatan ez tiraden hitz bakhointz batzu hango anzora itzuliak». Bigarren idatzi hau laphurtar-zuberoatar hiztegi ttipitto bat dugu. Horri-alde hek khontuzko dire eskuararen historiari dagokan bezanbatean. Erakusten dute alde batetik gramatikazale, bai eta ere filologo baten axola zuela, bertzetik izkiriatu nahi zuela Eskualdun guziek adigarri mintzaireraz. Lerro hauk irakurten ditugu «Heuskaldunen» tituluaren pean. «Heuskarazko hitzak, nola skribatzen, hala letra guziekin Latinen anzora pronuntzen-ere dirade: eta u bokala, betheki, ou baliz bezala. Berzalde Testamentu berriaren heuskarazko translazione hunetan hitz bakhointz batzu letra xeheagoz tekstu artean ezarri izan dirade, ezagun den-tzat hek tekstuan aditzen diraden hitzak izanagatik, ez tiradela ordea tekstu gorputz berekoak, baina deklaragarri jarriak. [Leizarragak ez du hala egiten liburu sainduaren itzultzean baizik, zeren itzultzeko dena Jainkoaren hitz garbia baita.] Gainerakoaz den bezanbatean, batbederak daki heuskal herrian kasi etxe batetik berzera-ere mintzatzeko maneran zer diferentzia eta dibersitatea den: razoin hunegatik sensu egiazkotik aldaratu gabe, lengoajea den bezanbatean ahalik gehiena guziei adi erazitenari jarreiki izan gaitzaitza, eta ez xoil edozein lekhu jakineko lengoaje bereziri: eta bada-

kigu ezen denborarekin anhitz hitz eta mintzatzeko manera eriden dela obra hunetan berzela hobeki erran zatenik: halakoetan, gauza zeren den dakitenetarik bat-bedera orhoituren da, othoi, ezen hanelako gauzak, guziz lengoaje oraino usatu gabe batetan, ezin behingoaz halako perfekzionetan jar daitezkeela nola behar bailizateke. [Entzun duzue: «guziz lengoaje oraino usatu gabe batetan». Leizarragak ez du Dechepareren izena aiphatzen. Bizkitartean eskaintzazko letran erraiten du: «zenbatez nik skribatu dudana lengoaje mota baita sterilenetarik eta dibersenetarik, eta oraino, translazioetan behintzat, usatu gabea». Bainan halarik ere ez du katoliko aphezaren izena aiphatzen, bertzela haragizko, bekhatuzko amodioa khantatu baitzuen.] Guziagatik-ere mintzatzeko maneran anhitz arrastatu gabe Jainkoaren hitz purari jarreikiteko desira dutenek sporzu dugu eridenean dutela (suporturekin) zertzaz kontenta. Eta baldin speranza dugun bezala, oraindrano egin den hunetan heuskaldunak gozorik edo edifikazionerik hartzen badu, hunetan enplegatu izan diradenean bihotz harturen dute, oraindranik gogoere duten bezala, egin denaren berriz ikhusteko eta korrijitzeko. [Leizarragak hemen nahi du bere lankideez mintzatu.] Baieta, baldin Jaunak hala plazer badu, pasaje difizilenean deklaragarri anotizionen ezarteko. Jainkoak othoi, haren desohorateko den doktrina guzia ezagut erazirik eta konfunditurik, haren ohoretako dena bethi entretenei eta abanza dezala Jesus Krist bere Seme gure Jaunaren izenean. Amen.»

Bigarren euskarazko liburua lehenaz, Decheparerenaz, bertzelakoa da lau ponduz. Lehenik, izkiribatua da hitz laxotan. Bigarrenekorik, itzulia da. Hirugarrenekorik, ez daduka erlijionezko gairik baizik: gehienetan Jainkoaren hitz garbia emaiten zaio irakurtzaleari. Laugarrenekorik, egileak izan zituen lau lankide, haren lanaren berriz ikhusteko eta korrijitzeko.

Xuxen erraiteko, Leizarragak zer irakurgai itzuli du? Baliatu da oroz gainetik frantseserako itzultzeaz, Pierre Robert, Olivetan izangoituak, Calvin'en ahaide eta adixkideak, egin baitzuen, eta hainitzetan berriz ikhusi eta korrijitua baitzen. Leizarraga eta, darik gabe, haren lankideak, jarraiki dire guzien gainetik itzulpen huni. Bainan bertzalde grekozko ithurburuari, bai eta ere latinezko «Vulgata» deitzen denari arthoski behatu diote. Zein nahi mintzaz, zein nahi herritan, liburu sainduetako irakurgai itzulariek

borthizki ohi hersten zuten, «Jainkoaren hitz pura» behar adiarazi baitzuten. Hartako zerbeit ez bada argi irakurgaiia sainduan, ez da itzulzean argi. «Haur bai erranen dut, dio Leizarragak eskain-letran, ezen bethi orhoitik nola Jainkoaren manu espresa den haren hitzari deus edeki eztakion ez eratxeki: hala egin ahal dudan fidelkiena egin ukhan dudala.» Bertze irakurgaiak ez dire hainbertze hertsiki itzuliak.

Zein kondizionetan lan handi hau hasi eta urhendu zen? Pau'en bildu Bearnoko Sinodoaren ordenanzaz, mila bortz ehun eta hiruetan hogoi eta lauean, martxoaren hamalauean, Joanes Leizarraga Beraskoizkoa kargatu zen Testamentu berriaren eta bertze irakurgaien itzultzeaz. Orduan egoiten zen «Laphurdin»; paperek ez dute deus ere gehiago erraiten. Hari manatu zioten lana egin zezan Pau'en. Ministroa izendatu eta, mila bortz ehun eta hiruetan hogei eta zazpian, aphirilaren hamabortzean, igorri zen Labastide-Clairence'rat, Eskual Herriari hurbilerat. Hil arte han egon zen.

Bearnoko Sinodoaren manuz, lau lankide, lan eginaren bisitazteaz eta konferitzez «behar izan zenean» kargatu ziren: Tartas, La Rive, Landetcheverry eta Tardets. Hetaryik bida bederen zuberotarrak ziren: Sanz de Tartas Sarrikotapekoa, eta Pierre de Landetcheverry Ündüreñokoa. Ez dakigu nola lau lankideek beren saila egin zuten. Bainan dudarik batere gabe Leizarraga zen buruzagia.

Lan manatua, ez bazen ere errex, arthoski egin zen. Nahiz Leizarragaren sor mintzaire mota, Beskoitzekoa, zen nafarrazkoa, hautatu zuen eskual literaturazko mintzairearen zolatzat mintzaire bat, erraiteko maneran, bertzeen artekoa, laphurtarra. Arrazoinekin. Hala ideki zuen bidea errege bide agertu da.

Leizarraga idazle handi bat othe da? Adiarazi dituen gogoetak ez ditu berak asmatu. Bainan eriden du heien adiarazteko mota. Eta khontuzko gauza da hori. Eskual Herrian, bertze herri hanitzetan, agian ere guzietan, bezala, lehenik neurthitzetan kanpoko herri hainitzetan bezala, hitz laxotan izkiriatu zuten lehen idazleak itzulariak izan ziren. Hori errexki adigarri da. Itzultzen ari dena, bereziki Jainkoaren hitza itzuli nahi duena, ez zaio ahal bere fantasiari jarraiki. Itzultzea etserizio arras ona da, elhea aberasten eta malgutzen baitu. Itzulariak ez dire lehen aldian ongi heldu. Leizarragaren izkiria-mota maiz dorpea da. Bainan orhoit gaitezen Dechepereren liburuko aintzin solasa, hitz laxotan izkiriatura, zein luze